



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI OROKORRAK, ARABAKO KALKULU GUNEA AB – CENTRO DE CÁLCULO DE ÁLAVA S.A. FORU SOZIE TATE PUBLIKORAKO LANGILE LAN-KONTRATUDUNEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK

LEHENENGO OINARRIA.- DEIALDIAREN XEDEA:

1.1. Oinarri hauen xedea da arau orokorrak ezartzea produkzio teknikari lanpostu bat (2020001) betetzeko Arabako Kalkulu Gunea AB - Centro de Cálculo de Álava, SA foru sozietate publikoan (hemendik aurrera AKGSA).

1.2. Deialdiko plaza edo lanpostuari enpresaren hitzarmenaren arabeko ordainsaria dagokio (3. maila: 36.069,66 € gordin urtean); hitzarmen horrek, halaber, gainerako lan baldintzak arautzen ditu, antzintasuna barne, zeina hirurtekoka sortuko baita.

1.3. Lanpostuko jardunak AKGSAk Gasteizko Probintzia Plazan z.g. dauzkan bulegoetan bete behar dira, bi saiotan, goizez eta arratsaldez.

1.4. Lanpostua betetzeko berariazko araudia, haren oinarri espezifikoen jasoko da.

1.5 Kontratazioa errelebo kontratu mugagabearen bidez egingo da, Langileen Estatutuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta dagokion probaldia loturik.

1.5. Deialdi hau prentsan argitaratuko da, eta oinarriak eskuragarri daude AKGSAaren web orrian (www.ccasa.es) eta Forselec Gestión empresa laguntzailearen web orrian (www.forselec.es), "Procesos en curso" atalean.

BIGARREN OINARRIA.- IZANGAIEI ESKATZEN ZAIZKIEN BALDINTZAK:

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte (baldintzak baztertzaileak dira kasu guztietan):

A) Eskaera: Eskaera, I. eranskina eta II. eranskina betetzea, dokumentu horietan jasotzen diren eremu guztietan.

B) Nazionalitatea: Inoren konturako lanpostuetan langile lan-kontratadun aritzeko indarrean den legediak ezartzen dituen betebeharrak guztiak betetzea. Atzerritarrei dagokienez, aintzat hartu behar da abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak (atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzerritar



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen du) eskatzen dituen baimenak eduki behar dituztela.

- C) Adina: Hamasei urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiroko gehieneko adina ez gainditzea.
- D) Tituluak: Honako titulu hauetako bat edukitzea edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana:
 - Goi-mailako heziketa zikloak (lehengo goi-mailako LH), “Elektrizitatea eta Elektronika” edo “Informatika eta Komunikazioak” lanbide adarretan.
 - “Zientziak” edo “Ingeniaritza eta arkitektura” adarretako unibertsitate tituluak.
- E) Gaitasun funtzionala: Ez izatea dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen osasun arazorik, hargatik eragotzi gabe 13/82 Legea, apirilaren 7koa, minusbaliatuen integrazio sozialari buruzkoa.
- F) Gaikuntza: Ez egotea epai bidez edo zerbitzuaren diziplina espedientearen bidez administrazio publikoetako edo sektore publikoko enpresetako edozeinetatik bereizia edo aldi batez lanpostutik kendua, eta ez egotea ezgaiturik funtzio publikoak betetzeko.

● Aurretik adierazi diren baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako eduki behar dira beterik, eta lan kontratua egiten den unera arte betetzen jarraitu, salbu eta E apartatuan aipatzen dena, zeina AKGSAk erabakitako Medikuz Zerbitzuak ziurtatu beharko baitu kontratazio proposamena egin aurre-aurretik.

● Pertsona ezinduak gainerako izangaien baldintza berberetan onartuko dira hautaketa probetan, baldin eta haien mugak iragarritako lanpostuari dagozkion eginkizunak edo zereginak normaltasunez betetzearekin bateraezinak ez badira. Hautaprobetan, denbora eta baliabideak ahal bezainbeste egokituko dira, baldin eta interesdunek hala eskatzen badute eskabidean.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKAEREN AURKEZPENA:

3.1. Izangaiek honako agiri hauek bidali beharko dituzte, posta elektronikoz, deialdian zehazten den helbidera:

- I. eranskina
- II. eranskina



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- **NANaren edo balio bereko nortasun agiri baten irudi eskaneatua.**
- **Izangaiaren curriculum vitae.**
- **Gizarte Segurantzak emandako lan bizitzaren ziurtagiria.**
- **Bigarren oinarrian, baldintza orokorretan, D) apartatuan, eskatutako titulu akademiko(ar)en irudi eskaneatua.**
- **Izangaiak baldintzak betetzen dituela eta alegatutako merezimenduak egiazkoak direla frogatzen duten agiri guztiak.**

Dokumentazioa zuzenbidean onartua den edozein baliabideren bidez justifikatuko da.

Eskabideak aurkezteko epea **XXXXXXXX** arte da.

FORSELEC enpresa laguntzaileak erantzuna bidaliko du hartu izanaren agiri gisa, posta elektronikoz, eskaera bidali ondoko 48 ordu balioduneko epean, eta izangai bakoitzari eskaera kode desberdin bat helaraziko dio.

Izangaien nortasuna isilpean edukitzeko erabiliko da kode hori hautaketa prozesuan egiten diren argitalpenetan.

LAUGARREN OINARRIA.- IZANGAIEN ONARPENA:

Eskabideak eta beharrezko dokumentazioa aurkezteko epea amaitutakoan, eta agiri guztiak aztertu ondoren, pertsona onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitara emango da Forselec Gestión enpresaren web orrialdean (www.forselec.es) eta AKGSaren web orrialdean (www.ccasa.es), eta hiru egun balioduneko epea egongo da erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik edo hutsegiterik izanez gero, haiek zuzendu edo konpondu ahal izateko.

Behin erreklamazio epea igarota, eta behin erreklamazioak ebatzirik, pertsona onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, deialdiaren baldintzak ez betetzeko arrazoiarekin batera, Forselec Gestión enpresaren web orrialdean www.forselec.es eta AKGSaren web orrialdean (www.ccasa.es) argitaratuko dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Horrez gain, e-mail bat igorriko da informazio moduan izangaiek emandako posta elektronikoko helbidera.

POSTA ELEKTRONIKORA EGINDAKO JAKINARAZPENEI BURUZKO OHARRA:

Hautaketa prozesuaren edozein fasetan posta elektroniko bidez bidaltzen diren jakinarazpenen xedea informazioa ematea da eta ez dira, inolaz ere, lotesleak izango.

BOSGARREN OINARRIA.- INFORMAZIOA ARGITARATZEA

5.1. Oro har, deialdiaren eta hautaketa prozesuaren inguruko iragarkien eta probetarako deien jakinarazpena (gutxienez probak baino 72 ordu lehenago egingo da), emaitzen argitalpena etab. honako bide hauetatik egingo dira:

- Web orria: www.ccasa.es
- Forselec Gestiónen web orria: www.forselec.es

Lehenengo argitalpena baino lehenago, interesdun bakoitzari haren eskaerari eman zaion kodea jakinaraziko zaio. Kode horrek identifikatuko du izangaia hautaketa prozesuan zehar egin beharreko argitalpenetan.

5.2. AKGSAk lan poltsa bat sortuko du behin-behineko kontratazioak egiteko. Lan poltsa horretan, aukeraketa prozesua gainditu duten pertsona guztiak sartuko dira, puntuazio hurrenkeran, 4. faseko elkarrizketa pertsonalaren balorazioa kontuan hartu gabe, baldin eta ez badira jo EZ GAITZAT 3. fasean.

Hala lan poltsa eratzea nola hura kudeatzeko oinarriak AKGSAren web orrian emango dira argitara, behin hautaketa prozesua amaitutakoan.

SEIGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIEN AUKERAKETA

Hautaketa probak amaitutakoan, epaimahaiak kontratazio proposamena egingo du fase bakoitzean lortutako puntuazioak batuta guztizko puntuaziorik handienak lortu dituzten izangaien alde.

Izangaien artean berdinketarik izanez gero, berdinketa desegiteko metodoa honako hau izango da:



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

1. 1. fasean lortutako puntuazioa
2. 2. fasean lortutako puntuazioa
3. 4. fasean lortutako puntuazioa
4. Zozketa

Izangaiaren aukeraketa interesdunari jakinaraziko zaio, eta hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko ditu hautaketa prozesuan parte hartzeko oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituelako frogatzeko egiaztagiria:

- a. Eskatzen diren eta curriculumean adierazi diren ikasketak egin izana egiaztatzen duten tituluen eta ziurtagirien kopia konpultsatua.

Proposatutako izangaiak ez badu aurkezten galdegiten zaion dokumentazioa, AKGSAk gaitzat jotako hurrengo izangaia (prozesuko amaierako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz) kontratatu ahal izango du.

Kontratatzeko proposatutako izangaiak sei hilabeteko probaldia egin beharko du.

Proposatutako izangaiak ez badu gainditzen sei hilabeteko probaldia, AKGSAk gaitzat jotako hurrengo izangaia (prozesuko amaierako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz) kontratatu ahal izango du.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

7.1 Hautaketa epaimahai bat eratuko da, eta hartako kideak izendatzerakoan inpartzialtasun eta profesionaltasun irizpideei jarraituko zaie.

7.2. Ordenamendu juridikoarekin bat, hautaketa epaimahaiak ebatziko ditu oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak, eta fase bakoitza behar den bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako jarraitu beharreko irizpideak ezarriz. Horrez gain, fase bakoitzaren emaitzak baliozkotuko ditu, eta gertatzen diren gorabehera guztiak ebatziko.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Epaimahai horretako kideren bat agertu ezingo balitz, sozietatearen kontseilari delegatuak edo zuzendari kudeatzaileak ordezkoa izendatuko du, beharrezkoa dela baderitzo. Epaimahaia hiru kidek osatuko dute beti gutxienez.

Epaimahaiak probaldia ebaluatzeko batzorde bat izendatu ahal izango du, eta hark behatu beharko du laneratze prozesua, eta amaitutzat eman, egokia izan dela joz gero. Osterantzean, justifikazio txostena eman beharko du.

7.3 Epaimahaiak erabaki dezake bere lanetan aholkulari edo enpresa espezializatuek parte hartzea, hala egitea egokia deritzon ariketen probetarako.

7.4. Epaimahaiko kideek ezin dute hautaketa prozesuan parte hartu (eta hala jakinarazi behar diote deialdia deitu duen agintaritzari) eta izangaiek errekusatzeko eskubidea baliatu ahalko dute Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23 eta 24. artikuluetan arautzen dituen inguruabarrak gertatzen badira.

7.5. Epaimahaia osatzen duten pertsona guztiek hitza eta botoa izango dituzte. Epaimahaiaren erabaki guztiak bertaratutako kide guztien botoaren gehiengoarekin onetsiko dira, eta, boto kopuruan berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoak ebatziko du bozketa.

7.6. Epaimahaikideen izen zerrenda behin betiko onartu eta baztertu diren izangaien zerrendarekin batera argitaratuko da.

7.7. Epaimahaiburuak edo haren ordezkoak neurri egokiak hartuko ditu 1. fasean egindako idatzizko ariketak izangaien nortasuna jakin gabe zuzentzen direla bermatzeko.

ZORTZIGARREN OINARRIA.- DATUEN BABESA:

Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, langileak hautatzeko prozesu honetan parte hartzen dutenei jakinarazten diegu prozesuan parte hartzearen ondorioz edozein xedetarako ematen dituzten datu pertsonalak Arabako Kalkulu Gunea SAK (AKGSA) eta Forselec Gestiónek (FORSELEC) horrela erabiliko dituztela:

OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA AKGSA-REN DATU BABESARI BURUZ	
Arduraduna	AKGSAko Administrazio eta Giza Baliabide Saileko arduraduna



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Xedea	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu AKGSAk: <ul style="list-style-type: none">Hautaketa prozesua gauzatzeko eta langilearen eta AKGSAren arteko lan harremana kudeatzeko.AKGSAk parte hartzaileekin eta izangaiekin osatzen dituen lan poltsak kudeatzeko.
Legitimazioa	Izenpetzen duen pertsonaren baimena
Hartzaileak	Datuak ez zaizkio inori lagako.
Eskubideak	Datuak ikusi, zuzendu eta ezabatzea, eta informazio gehigarriaren dokumentuan jasotzen diren gainerakoak.
Informazio gehigarria	Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu honako web orri honetan: www.ccasa.es , Lege informazioa -> Datu pertsonalak atalean.

FORSELEC-EN DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA

Arduraduna	FORSELEC GESTIÓN, SL (GRUPO LANAK), Gasteiz Hiribidea, 62 - 1.a, 6 bulegoa, 01012 Vitoria-Gasteiz, forselec@forselec.es
Xedea	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu FORSELECek: <ul style="list-style-type: none">Langileak hautatzeko prozesu honetan eta etorkizunekoetan parte hartzeko. Nortasun eta lan profilak egiteko. Emandako erreferentziak egiaztatzea.
Legitimazioa	Izangaiaren baimena, curriculum vitae bidaltzean.
Hartzaileak	Langileak hautatzeko prozesuak gauzatzeko enpresaren zerbitzuak erabili nahi dituzten bezeroak.
Zaintza	Langileak hautatzeko prozesuak iraun bitartean, eta hura amaituta, urtebetez, beste hautaketa prozesu batzuetarako.
Eskubideak	Eskubidea duzu edozein momentutan baimena kentzeko, bai eta datuak ikusi, zuzendu, ezabatu, aurkaratu, mugatu eta lekuz aldatzeko, arduradunari idatzi bat bidaliz eta erabilera zehatza eta baliatu nahi duzun eskubidea adieraziz. Zure datuen erabilerari buruz enpresarekin desadostasunik izanez gero, erreklamazio aurkez dezakezu datuak babesteko agintaritzaren aurrean (www.aepd.es)

